# moto g5   moto g5 PLUS

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Begiratu batean | Has gaitezen | Pantaila nagusia eta aplikazioak | Moto aplikazioak | Kontrola eta pertsonalizazioa | Irisgarritasuna |
| Deiak | Kontaktuak | Mezuak | Posta elektronikoa | Idaztea | Google Apps™ |
| Nabigazioa | Argazkiak eta bideoak | Musika | Kokapena eta nabigazioa | Konexioak eta transferentziak | Segurtasuna |
| Segurtasuna | Gehiago nahi duzu? | Arazoak konpontzea | Segurtasuna | Gai interesgarriak | Gaiak bilatzea |

Lenovo

# Begiratu batean

begiratu azkar bat

**Begiratu batean**
- Lehen urratsak - Moto G5
- Lehen urratsak - Moto G5 Plus
- Gai interesgarriak

Menua
Gehiago
Atzera
Hurrengoa

## Lehen urratsak - Moto G5

Has gaitezen! Hasierako fasean gidatuko zaitugu, eta zure telefonoen funtzioen berri emango dizugu.

**Oharra:** software-eguneratzeak maiz izaten dira; beraz, baliteke telefonoaren itxura zertxobait aldatzea.




## Lehen urratsak - Moto G5 Plus



# Begiratu batean


Begiratu batean
Lehen urratsak - Moto G⁵
Lehen urratsak - Moto G⁵ Plus
Gai interesgarriak




## Aholkuak eta iradokizunak

- **Lehen urratsak:** sartu SIM txartela(k) telefonoan, eta kargatu telefonoa. Gero, piztu telefonoa, eta segitu pantailan agertuko diren konfigurazio-jarraibideei. Ikusi **"Lehen urratsak: Moto G⁵ Plus"**.
- **Gai interesgarriak:** nahikoa duzu telefonoarekin egin ditzakezun gauzen zerrenda azkar bat? Ikusi **"Gai interesgarriak"**.
- **Laguntza:** gailuan bertan aurkitu ditzakezu hari buruzko zalantza guztien erantzunak. Irristatu gorantz ^ > ? **Ayuda del dispositivo.**

  Gehiago nahi duzu? Ikusi **"Laguntza lortzea eta askoz gehiago"**.

**Oharra:** litekeena da aplikazio eta funtzio batzuk ez egotea erabilgarri herrialde guztietan.

Produktu honek irrati-maiztasunerako esposizioari buruz aplikatu beharreko estatuko eta nazioarteko arauak (SAR) betetzen ditu, normal erabiltzen bada buruaren ondoan edo soinean eramatean gorputzetik 0,5 cm-ra erabiliz gero.

SAR arauek segurtasun-marjina dute pertsona ororen segurtasuna bermatzeko, haien adina eta osasun-egoera edozein dela ere.

**Kontuz:** telefonoa erabili aurretik, irakurri lege-informazioa, gorantz irristatuz ^ > ⚙ > **Ajustes > Información legal.**

## Gai interesgarriak

Ikusi zer egin dezakeen telefonoak.

| Gaia | Kokapena |
|---|---|
| Aurkitu aukera hauek azkar-azkar: WiFi-a, hegazkin modua eta linterna, besteak beste. | Ikusi **"Doikuntza azkarrak".** |
| Atximur egitea, zooma, irristatzea eta askoz | Ikusi **"Kontrolak eta keinuak".** |
| Aukeratu beste pantaila-atzealde bat, gehitu widgetak eta askoz gehiago. | Ikusi **"Pantaila nagusia pertsonalizatzea".** |
| Aurkitu argazki perfektua ateratzeko doikuntza egokiak. | Ikusi **"Argazkiak ateratzea".** |
| Sartu Internetera. | Ikusi **"Nabigazioa".** |
| Bilatu, erosi eta deskargatu aplikazioak. | Ikusi **"Aplikazioak deskargatzea".** |
| Babestu zure datuak. Zure pasahitza konfiguratzea eta askoz gehiago | Ikusi **"Segurtasuna".** |
| Inoiz gehiago gal ez zaitezen. | Ikusi **"Kokapena eta nabigazioa".** |
| Aurreztu datuen truke kobratzen diren karguetan. | Ikusi **"WiFi sareak".** |
| Blokeatuta? Nahastuta? | Ikusi **"Laguntza lortzea eta askoz gehiago".** |

# Lehen urratsak: Moto G5

Moto G5 Plus-erako, ikusi **“Lehen urratsak: Moto G5 Plus”**

**Lehen urratsak: Moto G5**
**Kendu atzeko tapa eta bateria**
**Txartelak sartzea**
**Estalkia jartzea eta telefonoa piztea**

## Kendu atzeko tapa eta bateria

Memoria-txartelak edo SIM txartela sartzeko, kendu atzeko estalkia.

**Oharra:** ez erabili tresnarik estalkia kentzeko; baliteke telefonoa hondatzea.







## Txartelak sartzea

Telefonoak bi SIM txartel onartzen ditu. SIM txartela(k) edo microSD memoria-txartel bat (aukerakoa) sartzeko, jarraitu argibide hauei.

**Kontuz:** ziurtatu tamaina egokiko SIM txartelak erabiltzen dituzula, eta ez moztu. Ez erabili tresnarik bateria kentzeko; baliteke telefonoa hondatzea.










* **Oharra:** SIM1 txartela ateratzeko, irristatu palanka zirrikituan.

Lehen urratsak: Moto G5
Kendu atzeko tapa eta bateria
Txartelak sartzea
Estalkia jartzea eta telefonoa piztea

## Estalkia jartzea eta telefonoa piztea

Jarri atzeko estalkia. Kargatu telefonoa erabat, eta piztu. Ondoren, aukeratu zure hizkuntza, eta bete pantailako jarraibideak hasteko.

**Bateria eta estalkia jartzea**



**Kargatu gailua, eta piztu.**



**Oharra:** kargatu erabat telefonoa, erabiltzen hasi aurretik.
Luze sakatu pizteko tekla, pantaila piztu arte.

# Lehen urratsak: Moto G5 Plus

Moto G5-erako, kontsultatu **"Lehen urratsak: : Moto G5"**

**Lehen urratsak: Moto G5 Plus**
- **SIM txartelak sartzea**
- **Piztua**

## SIM txartelak sartzea

Telefonoak bi SIM txartel onartzen ditu. SIM txartela(k) edo microSD memoria-txartel bat (aukerakoa) sartzeko, jarraitu argibide hauei.

**Kontuz:** ziurtatu tamaina egokiko SIM txartelak erabiltzen dituzula, eta ez moztu. Ez erabili tresnarik bateria kentzeko; baliteke telefonoa hondatzea.



Nano SIMa

**Sartu nanoSIM txartela eta memoria-txartelak.**

Telefonoa beherantz begira dagoela, sartu SIMerako tresna erretiluaren zuloan, txartela ateratzeko.

Sartu SIM txartela urre-koloreko kontaktuak gora begira dituela. Sartu aukerako microSD txartel bat erretiluaren atzealdean.




**Sartu berriz erretilua telefonoan.**



## Piztua

Kargatu telefonoa erabat, eta piztu. Ondoren, aukeratu zure hizkuntza, eta bete pantailako jarraibideak hasteko.

**Kargatu telefonoa.**

Telefonoa erabiltzen hasi aurretik, kargatu erabat telefonoak berak dakarren kargagailuarekin.



**Piztu telefonoa.**




Luze sakatu pizteko botoia, pantaila piztu arte.

Menua Gehiago
Atzera Hurrengoa

Has gaitezen
Saioa hastea
Bateriaren iraupena

## Saioa hastea

Telefonoa piztutakoan, aski duzu pantailako argibideei jarraitzea hasteko.

Gmail™ erabiltzen baduzu, badaukazu Google™-ren kontu bat. Hala ez bada, kontu bat sor dezakezu telefonoa konfiguratzen ari zaren bitartean. Googleko zure kontuan saioa hasten baduzu, zure edukietara sar zaitezke, haiek sinkroniza ditzakezu eta haien segurtasun-kopia egin. Kontsultatu Googleko zure kontaktuak, egutegia, argazkiak eta askoz gehiago.

### Aholkuak eta iradokizunak

- **WiFi sarea:** Interneteko sarbide azkarragoa lortzeko, edo datu gehiegi ez erabiltzeko, irristatu egoera-barra beherantz bi hatz erabiliz, eta, ondoren, ukitu ⚙ > **Wi-Fi**. Informazio gehiago, atal honetan: **"WiFi sareak"**.
- **Kontuak:** kontuak gehitzeko, editatzeko edo ezabatzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Cuentas**. Posta elektronikoko kontuak konfiguratzeko, ikusi **"Posta elektronikoa"**.
  Zure Googleko kontuari buruzko laguntza eskuratzeko, ikusi www.google.com/accounts.

**Oharra:** telefono honek onartzen ditu datu asko erabiltzen dituzten aplikazioak eta zerbitzuak; beraz, gomendagarria da zure datu-planak zure beharrak asetzen dituen aztertzea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

## Bateriaren iraupena

Telefonoak informazio-kantitate handiak prozesatzen ditu. Erabiltzen duzunaren arabera, telefonoak energia asko kontsumi dezake.

Telefonoa erabat geldirik dagoenean (hau da, kargatzen ari ez denean edo denbora batez erabiltzen ez denean), itxi egiten dira behar ez diren bigarren mailako prozesuak, bateriaren iraupena optimizatzeko.

Bateria zerk kontsumitzen duen ikusteko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Batería**.
Bateriaren bizitza erabilgarria luzatzen laguntzeko, irristatu gorantz^ > ⚙ **Ajustes** > **Batería** > **Ahorro de batería**, eta aktibatu.
**Aholkua:** Ajustes aukera azkar irekitzeko, irristatu egoera-barra beherantz bi hatz erabiliz, eta ukitu ⚙.

### Aholkuak eta iradokizunak

Bateriak gehiago iraun dezan karga batetik bestera, murriztu hauek:

- Bluetooth®-en erabilera: irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Bluetooth**, eta desaktibatu behar ez duzunean.
- GPSaren erabilera: irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Ubicación** > **Modo** > **Ahorro de batería** GPSaren jarraipena desaktibatzeko.
- Pantailaren distira: irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Pantalla** > **Nivel de brillo**, eta arrastatu distiraren kontrol lerragarria ezkerrera. Egiaztatu **Brillo automático** aukera ere aktibatuta dagoela.

Has gaitezen
Saioa hastea
Bateriaren iraupena

- Pantailaren itxarote-denbora: irristatu gorantz ^ > Ajustes > Pantalla > Suspensión > (tarte txikiena).
- Gutxi erabiltzen diren aplikazioen jarduera: irristatu gorantz ^ > Ajustes > Batería, eta, ondoren, ukitu ⋮ > **Optimización de batería** > **Todas las aplicaciones**. Hautatu doitu nahi duzun aplikazioa, eta ukitu **Optimizar**.
- Widgetek informazioa bideratzen dute pantaila nagusira; adibidez, albisteen eta eguraldiaren widgetak.
- Erregistratu dituzun eta erabiltzen ez dituzun lineako kontuak: irristatu gorantz ^ > **Ajustes** > **Cuentas**. Hautatu ezabatu nahi duzun kontua. Ukitu berriro, eta, gero, ukitu menua ⋮ > **Eliminar cuenta**.
- Bideoak grabatzea eta ikustea, musika erreproduzitzea edo argazkiak ateratzea.

# Pantaila nagusia eta aplikazioak

azkar sar zaitezke


Pantaila nagusia eta aplikazioak
- Azkar hastea: pantaila nagusia eta aplikazioak
- Laguntza eta gehiago
- Bilaketa
- Egoera eta jakinarazpenak
- Bolumena eta etenak
- Ez molestatu
- Aplikazioak deskargatzea
- Aplikazioak zaintzea
- Telefonoa eguneratzea



Menua Gehiago
Atzera Hurrengoa


## Azkar hastea: pantaila nagusia eta aplikazioak

Telefonoa piztean azaltzen da hasierako pantaila. Handik, aplikazioak araka ditzakezu, eta beste ekintza batzuk egin.

**Oharra:** software-eguneratzeak maiz izaten dira; beraz, baliteke pantailaren itxura zertxobait aldatzea.




## Aholkuak eta iradokizunak

- **Aplikazioen zerrenda irekitzea:** irristatu gorantz ^, eta, ondoren, irristatu pantaila gorantz, aplikazioetan barrena mugitzeko.
- **Itzultzea:** edozein lekutatik pantaila nagusira itzultzeko, ukitu hasierako tekla ○. Baldin eta “Navegación con un botón” aukera aktibatuta badago, ukitu hatz-marka digitalen sentsorea hasierara itzultzeko. Ikusi **“Ukitu bakar batekin kontrolatzea”** atala, funtzio horri buruzko informazio gehiago izateko.
- **Orriak:** orri bat gehitzeko, arrastatu aplikazio bat pantailaren eskuineko albora, barra zuri bat bistaratu arte. Orri bat baino gehiago gehi ditzakezu.
  Beste lasterbide eta widget batzuk ikusteko (erabilgarri badaude), irristatu pantaila nagusian ezkerrera.
- **Doikuntzak:** ohiko doikuntzak azkar irekitzeko, irristatu egoera-barra beherantz, bi hatz erabiliz. Doikuntza gehiago irekitzeko, ukitu ⚙.
- **Lasterbideak:** irristatu gorantz ^, luze sakatu aplikazioa, eta arrastatu pantaila nagusiko orri batera. Aplikazio guztiak ikusteko, irristatu gorantz ^.
- **Aplikazioak:** pantaila nagusiko orriko aplikazio bat ezabatzeko, luze sakatu aplikazioa, eta, ondoren, arrastatu hona: ✕ **Eliminar.** (Aplikazioa ez da ezabatzen telefonotik, pantaila nagusitik baino ez).
  Pantaila nagusiko aplikazioak desinstalatzeko, luze sakatu aplikazioa, eta, ondoren, arrastatu hona: Desinstalar. (Aplikazio batzuk ezin dira desinstalatu. Ikusi **“Aplikazioak zaintzea”**.)

# Pantaila nagusia eta aplikazioak


Pantaila nagusia eta aplikazioak
- Azkar hastea: pantaila nagusia eta aplikazioak
- Laguntza eta gehiago
- Bilaketa
- Egoera eta jakinarazpenak
- Bolumena eta etenak
- Ez molestatu
- Aplikazioak deskargatzea
- Aplikazioak zaintzea
- Telefonoa eguneratzea


- **Pertsonalizatzea:** pantaila nagusia aldatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi **"Pantaila nagusia pertsonalizatzea"**.

## Laguntza eta gehiago

Ikusi tutorial bat, irakurri jarraibideak, eta topatu telefonoari buruzko informazio oro.

**Joan hona:** : irristatu gorantz ^ > ? **Ayuda del dispositivo**




## Bilaketa

Pantaila nagusiaren goiko aldean, ukitu Googleren bilaketa-koadroa testu bat bilatzeko, edo ukitu 🎤 ahots bidez bilatzeko.

Idatzi ahala, iradokizunak bistaratuko zaizkizu bilaketa-eremuaren azpian:

- Iradokizun bat bilatzeko, uki ezazu.
- Bilaketa-eremuan testua bilatzeko, ukitu 🔍 teklatuan.

  **Aholkua:** teklatua ixteko, ukitu ▽.

## Egoera eta jakinarazpenak

Pantailaren goiko aldean, ezkerreko ikonoek jakinarazten dizute mezu eta gertakari berriak daudela. Ez badakizu ikono batek zer esan nahi duen, irristatu barra behera, informazio gehiago eskuratzeko.

**Aholkua:** jakinarazpen gehiegi jasotzen dituzu? Luze sakatu jakinarazpen bat, zer aplikaziok bidali dizun ikusteko. Ondoren, aukera duzu desaktibatzeko.



Pantaila nagusia eta aplikazioak
Azkar hastea: pantaila nagusia eta aplikazioak
Laguntza eta gehiago
Bilaketa
Egoera eta jakinarazpenak
Bolumena eta etenak
Ez molestatu
Aplikazioak deskargatzea
Aplikazioak zaintzea
Telefonoa eguneratzea



**Aholkua:** ohiko doikuntzak azkar aldatzeko, irristatu egoera-barra beherantz, bi hatz erabiliz. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi **"Doikuntza azkarrak"**.

Pantailaren goialdeko eskuineko ikonoek telefonoaren egoera adierazten dizute:

| Egoera-ikonoak | |
|---|---|
| sarearen intentsitatea | ez molestatu |
| WiFi barrutian/ konektatuta | bertikala / biratze automatikoa |
| bluetootha piztuta/ konektatuta | datuen babesa desaktibatuta |
| hegazkin modua | alarmaren doikuntzak |
| bateria kargatzen/ beteta | kokapena desaktibatuta/aktibatuta |

**Nota:** las aplicaciones descargadas de Google Play™ podrían mostrar otros iconos en la barra de estado para avisarle de eventos especiales.

## Bolumena eta etenak

Sakatu bolumen-botoiak gorantz edo beherantz txirrinaren bolumena hautatzeko: bolumen altu batetik, bibrazioraino.



Ukitu hau, bolumen-kontrol guztiak bistaratzeko.

Konfiguratu txirrina, multimedia-edukia edo alarmaren bolumena, kontrol lerragarria arrastatuz edo alboko bolumen-botoiak sakatuz.

Ukitu ikono bat, txirrin bat bibra dezan konfiguratzeko edo multimedia-edukia edo alarmaren bolumena isilarazteko.

### Ez molestatu

Soinu batzuk edo guztiak desaktibatzeko, irristatu egoera-barra beherantz bi hatz erabiliz, eta ukitu **No molestar**. Hautatu aukera hauetako bat:

- **Silencio total.** Soinu eta alarma guztiak itzaltzen dira. Beste aplikazio batzuetako soinu-doikuntzak bertan behera uzten dira. Modu horretan zenbat denbora egon nahi duzun zehaztu dezakezu, edo denbora mugagabea aukeratu.
- **Solo alarmas.** Alarmak bakarrik zenbat denboran entzun nahi dituzun zehaztu dezakezu, edo horretarako denbora mugagabea aukeratu. Ukitu **MÁS AJUSTES** jasotzen dituzun gainerako etenak pertsonalizatzeko.
- **Solo prioridad.** Lehentasunezko etenak soilik zenbat denboran entzun nahi dituzun zehaztu dezakezu, edo horretarako denbora mugagabea aukeratu. Ukitu **MÁS AJUSTES** jaso nahi dituzun etenak pertsonalizatzeko.

Pantaila nagusia eta aplikazioak
Azkar hastea: pantaila nagusia eta aplikazioak
Laguntza eta gehiago
Bilaketa
Egoera eta jakinarazpenak
Bolumena eta etenak
Ez molestatu
Aplikazioak deskargatzea
Aplikazioak zaintzea
Telefonoa eguneratzea



**Aholkua:** dei errepikatuetarako salbuespen bat sortzeko eta, hartara, 15 minuturen barruan pertsona beraren beste dei bat jasotzeko, ukitu **MÁS AJUSTES > Permitir solo prioritarias > Autores de llamada repetidos**.

## Aplikazioak deskargatzea

### Google Play™

Lortu musika, filmak, liburuak, aplikazioak, jokoak eta askoz gauza gehiago.

**Joan hona:** Play Store

- **Bilatzea:** erabili bilaketa-barra aplikazioak bilatzeko.
- **Deskargatzea:** aplikazio bat deskargatzeko, hautatu zuk nahi duzun aplikazioa xehetasun gehiago ikusteko, eta, ondoren, ukitu **INSTALAR** edo **COMPRAR**.
- **Partekatzea:** Google Playn aurkitzen duzun aplikazio bat partekatzeko, hautatu zuk nahi duzun aplikazioa xehetasunak ikusteko, eta, ondoren, ukitu .
- **Berriro instalatzea:** Google Playtik deskargatu dituzun aplikazioak bistaratzeko edo berriro instalatzeko, ukitu > **Mis aplicaciones y juegos**.
- **Ordenagailu bat erabiltzea:** edozein ordenagailutan aplikazioak aurkitu eta administratzeko, sartu http://play.google.com webgunean zure Googleko kontua eta pasahitza erabiliz.

  Hala, aplikazioak pantaila handi batean ikusi ahal izango dituzu, zenbait gailutan administratu (telefonoetan eta tabletetan, esaterako) eta zure gailuetan aplikazio berriak deskargatzea konfiguratu.
- **Musika entzutea**, filmak ikustea eta askoz gehiago: musika, filmak, telebista-programak eta askoz gehiago deskargatzeko ere erabil dezakezu Google Play. Ikusi **"Argazkiak eta bideoak"** eta **"Antolakuntza"** aplikazioak.
- **Laguntza:** laguntza izateko eta gehiagorako, ukitu .

### Interneteko aplikazioak

Onlineko beste aplikazio-denda batzuetako aplikazioak eskuratu ditzakezu zure nabigatzailearen bidez.

**Aholkua:** kontu handiz aukeratu aplikazioak eta eguneraketak; baliteke haietako batzuek telefonoaren errendimenduari eragitea. Ikusi **"Kontu handiz aukeratzea"**.

**Oharra:** aplikazio bat instalatzean, ziurtatu aplikazio horren bidez eskuratutako informazio-motaren berri ematen duten alertak irakurri dituzula. Ez baduzu nahi aplikazioak informazio hori eskuratzea, ezeztatu instalazioa.

Zure telefonoak Google Playn ez dauden aplikazioak instalatu ahal izan ditzan, irristatu gorantz > **Ajustes** > **Seguridad** eta, ondoren, ukitu **Orígenes desconocidos** etengailua, aktibatzeko.

Fitxategiak zure nabigatzailetik deskargatzeari buruzko informazioa lortzeko, ikusi **"Deskargak"**.

### Kontu handiz aukeratzea

Kontuan izan aholku hauek:

- Software espioia, nortasun-lapurretarako softwarea (phishing-a) edo birusak saihesteko, erabili konfiantzako guneetako aplikazioak; Google Playkoak, esaterako.
- Google Playn, kontsultatu aplikazioaren balorazioak eta iruzkinak instalatu aurretik.

# Pantaila nagusia eta aplikazioak


Pantaila nagusia eta aplikazioak
- Azkar hastea: pantaila nagusia eta aplikazioak
- Laguntza eta gehiago
- Bilaketa
- Egoera eta jakinarazpenak
- Bolumena eta etenak
- Ez molestatu
- Aplikazioak deskargatzea
- Aplikazioak zaintzea
- Telefonoa eguneratzea



Menua Gehiago
Atzera Hurrengoa


- Aplikazio baten segurtasunari buruzko zalantzak badituzu, ez instalatu.
- Aplikazioek memoria, datuak, bateria eta prozesatzeko ahalmena erabiltzen dituzte; batzuek besteek baino gehiago. Ez bazaude gustura aplikazio batek erabiltzen duen memoria-, datu eta bateria-kantitatearekin edo prozesatzeko ahalmenaren, desinstalatu aplikazio hori.
- Kontrolatu haurrak zer aplikazioetara sartzen diren, egokiak ez diren edukiak ikus ez ditzaten.
- Baliteke aplikazio batzuek ematen duten informazioa ez izatea guztiz zehatza. Kontuan izan hori, batez ere zure osasun pertsonalari lotutako kontuetan.

## Aplikazioen baimenak ezartzea

Aplikazio baten funtzioa erabiltzen duzunean bakarrik eskatuko zaizkizu baimenak; ez zaizkizu eskatuko baimenak aplikazioa instalatu eta berehala.

Aplikazioen baimenak edonoiz aldatzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Aplicaciones**. Ondoren, hautatu aplikazioa, eta ukitu **Permisos**.

Aplikazioen baimenak aplikazio-motaren arabera (adibidez, egutegia edo kamera) aldatzeko, edonoiz, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Aplicaciones**, eta, ondoren, ukitu ⚙ **Ajustes** > **Permisos de la aplicación**.

## Aplikazioak zaintzea

**Joan hona:** irristatu gorantz ^ , eta, ondoren, irristatu pantaila gorantz, aplikazioetan barrena mugitzeko.

Aplikazio-pantaila ixteko, ukitu hasierako tekla ○ edo atzera tekla ◁.

- **Aplikazioak desinstalatzea:** pantaila nagusiko orriko aplikazio bat ezabatzeko, luze sakatu aplikazioa, eta, ondoren, arrastatu hona: **Eliminar.** Aplikazioa ez da ezabatzen telefonotik, pantaila nagusitik baino ez.

  Aplikazio bat telefonotik ezabatzeko, luze sakatu aplikazioa, eta, ondoren, arrastatu hona: **Desinstalar**.

  Aplikazio bat desgaitzeko edo geldiarazteko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Aplicaciones**.

  **INHABILITAR** sakatuz gero, aplikazioa ezabatu egiten da menutik; gaitzeko, ireki berriro leiho hori, eta ukitu **HABILITAR** (ukitu **Inhabilitado**, lehendabizi desgaitutako aplikazioen zerrenda bizkorrago ikusteko).

  Aplikazio bat blokeatu egiten bada telefonoan hura piztean, berrabiarazi modu seguruan: luze sakatu pizteko botoia. **Apagar el teléfono** aukera ikusten duzunean, luze sakatu, **Reiniciar en modo seguro** aukera hautatzeko. Telefonoa **modu seguruan** berrabiarazten da (behealdean dago, ezkerrean). Gero, saiatu aplikazioa ezabatzen.

**Pantaila nagusia eta aplikazioak**
- **Azkar hastea: pantaila nagusia eta aplikazioak**
- **Laguntza eta gehiago**
- **Bilaketa**
- **Egoera eta jakinarazpenak**
- **Bolumena eta etenak**
- **Ez molestatu**
- **Aplikazioak deskargatzea**
- **Aplikazioak zaintzea**
- **Telefonoa eguneratzea**

- **Aplikazioak berriro instalatzea:** aplikazioak Google Playtik berriro instalatzeko, ukitu **Play Store**, eta, ondoren, ukitu > **Mis aplicaciones y juegos**. Deskargatzen dituzun aplikazioak zerrenda batean bistaratuko zaizkizu, eta deskargatzeko prest izango dituzu.
- **Aplikazioen datu-erabilera ikustea:** datu-kopuru handia erabiltzen duten aplikazioak bistaratzeko, irristatu gorantz > **Ajustes** > **Uso de datos** > **Uso de datos móviles**. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi **“Datuak erabiltzea”**.

## Telefonoa eguneratzea

Telefonoaren softwarea kontsultatzeko, deskargatzeko eta eguneraketak instalatzeko erabil dezakezu telefonoa edo ordenagailua.

- Telefono bidez:

  zure telefonoak eguneraketa baten berri ematen badizu, bete jarraibideak, deskargatu eta instalatzeko.

  Eguneratzeak eskuz bilatzeko, irristatu gorantz > **Ajustes** > **Acerca del teléfono** > **Actualizaciones del sistema**.

  Telefonoak WiFi konexio baten bidez (eskuragarri badago) edo sare mugikorraren bidez deskargatzen ditu eguneraketak. Eguneraketak WiFi bidezko konexioa duzunean deskargatzea gomendatzen dizugu.

  Gogoan izan eguneratzeak handi samarrak izan daitezkeela (25 MB edo gehiago) eta litekeena dela ez egotea eskuragarri herrialde guztietan. Sare mugikorraren bidezko eguneraketak ez badaude eskuragarri zure herrialdean, ordenagailu batean egin ditzakezu.

  **Oharra:** telefonoa eguneratzean, ziurtatu bateriak baduela behar adina karga eguneratzea burutzeko.

- Ordenagailu bidez:

  Ordenagailuan, joan hona: www.motorola.com/update.

# Moto aplikazioak

begiratu zer egin dezakeen.

**Moto aplikazioak**
**Ezagutu Moto aplikazioa**

## Ezagutu Moto aplikazioa

Moto aplikazioak bizitza erraztuko dizu, eta laguntza eman. Jarraitu argibideei, informazio gehiago izateko.

**Joan hona:** **Moto**

- **Ekintzak:** telefonoak zure keinuei erantzuten die berehala. Astindu bitan linterna pizteko; eman buelta "Ez molestatu" modua aktibatzeko; eta askoz gehiago.
- **Pantaila:** ikusi mezuak, deiak eta beste jakinarazpen batzuk, baita telefonoa etenaldia moduan dagoenean ere.




**Oharra:** baliteke zure telefonoak funtzio guztiak ez izatea.

## Aholkuak eta iradokizunak

- Jakinarazpen konfidentzialak ezkutatu nahi dituzu?

  Ukitu **Moto** > **Pantalla**, eta, ondoren, zehaztu zer aplikaziok erakutsiko dituzten jakinarazpenak eta zenbat informazio bistaratuko den pantailan.
- Erabili Moto pantaila telefonoa etenaldia moduan dagoenean musika pausarazteko edo berriro martxan jartzeko.
- Ukitu **Moto** > **Acciones**, deiaren tonua azkar-azkar isiltzeko, eta sarrerako deien tonua bibrazio bihurtzeko telefonoa hartzean.
- Aktibatu "Deslizar para reducir pantalla" funtzioa, hatz bat irristatzean pantaila txikitzeko eta esku bakar batez errazago erabiltzeko.

  **Oharra:** "Deslizar para reducir pantalla", erabiltzeko, aktibatuta egon behar du "Navegación con un botón" aukerak.

## Ukitu bakar batekin kontrolatzea

Blokeatu eta desblokeatu telefonoa, nabigatu eta egin erosketak ukitu bakar batez.

**Joan hona:** **Moto** > **Acciones** > **Navegación con un botón.**

"Navegación con un botón" aukera aktibatuta, ezabatu egingo dira pantailako Atrás ◁, Inicio ○ eta Recientes □ botoiak. Haien ordez, hatz-marka digitalen sentsorea erabiliz nabiga dezakezu telefonoarekin.

# Moto aplikazioak

Moto aplikazioak
Ezagutu Moto aplikazioa

Hatz-marka digitalen sentsorearekin nabigatzeko, erabili keinu hauek:

- **Hasi:** ukitu azkar-azkar hatz-marka digitalen sentsorea pantaila nagusira itzultzeko.
- **Atzera:** irristatu hatza eskuinetik ezkerrera pantaila nagusira itzultzeko.
- **Azkena erabiliak:** irristatu sentsorean ezkerrera azkena erabilitako aplikazioak ikusteko.
- **Blokeatu:** zanpatu sentsorea bibrazio txiki bat igarri arte, eta, gero, askatu, pantaila blokeatzeko.
- **Google:** luze sakatu sentsorea bibrazio luzeago bat igarri arte, Googleren funtzioak aktibatzeko (ikusi **"Google™"** informazio gehiago izateko).




**Oharra:** "atzera" eta "azkena erabiliak" keinuetarako norabidea aukeratzeko, joan **Moto** > **Acciones** > **Navegación con un botón** aukerara, eta ukitu beheko gezia irristatzedoikuntza hautatzeko

Kontrola eta pertsonalizazioa
Azkar hastea: kontrola eta pertsonalizazioa
Kontrolak eta keinuak
Aktibatzea, desaktibatzea, blokeatzea eta desblokeatzea
Soinuak eta itxura pertsonalizatzea
Pantaila nagusia pertsonalizatzea
Doikuntza azkarrak
Direct Share



## Azkar hastea: kontrola eta pertsonalizazioa

Eduki ezazu kontrolpean telefonoa.

- **Ukitzea, sakatzea eta hitz egitea:** ikasi telefonoaren keinuak eta komandoak. Ikusi **"Kontrolak eta keinuak"**.
- **Pantaila nagusia pertsonalizatzea:** pantaila nagusira widgetak gehitzeko —hala nola erloju bat edo egutegi bat—, ikusi **"Pantaila nagusia pertsonalizatzea"**.




Irristatu hatz bat beherantz jakinarazpenak ikusteko, edo bi hatz, profilak eta doikuntzak ikusteko.

Bilatzeko, idatzi edo esan "OK, Google".

Luze sakatu pantailako puntu huts bat widgetak eta pantailaren atzealdea aldatzeko eta beste hainbat ekintza egiteko.

Irristatu gorantz ^ aplikazio guztiak ikusteko.

### Aholkuak eta iradokizunak

- **Hitz egitea:** ukitu 🎤 bilaketa-leiho bat edo 🎤 teklatu bat.
- **Pantaila nagusiko orri bat gehitzea:** arrastatu aplikazio baten ikono bat pantaila nagusiaren eskuineko albora, barra zuri bat bistaratu arte. Orri bat baino gehiago gehi ditzakezu.
- **Doikuntza azkarrak: WiFi-a, bluetootha, hegazkin modua** eta beste doikuntza batzuk aldatzeko, irristatu hatzekin egoera-barra beherantz. Doikuntza gehiago ikusteko, ukitu ⚙.
- **Ez duzu doikuntzaren bat aurkitzen?** Irristatu gorantz ^ > ⚙ > **Ajustes** > 🔍.

## Kontrolak eta keinuak

### Ukitzea

Aurkitu bidea:

- **Ukitzea:** ikono bat edo aukera bat hautatzeko.
- **Luze sakatzea:** aukera gehiago ikusteko.
- **Arrastatzea:** pantaila nagusiko elementuak mugitzeko.
- **Irristatzea:** zerrendetan edo pantailetan barrena mugitzeko.
- **Atximur egitea edo bi aldiz sakatzea:** zooma handitzeko edo txikitzeko webguneetan, argazkietan eta mapetan.
- **Biratzea:** biratu mapa bat bi hatzekin, biratzeko, eta irristatu beherantz bi hatzekin, inklinatzeko.

# Kontrola eta pertsonalizazioa


Kontrola eta pertsonalizazioa
Azkar hastea: kontrola eta pertsonalizazioa
Kontrolak eta keinuak
Aktibatzea, desaktibatzea, blokeatzea eta desblokeatzea
Soinuak eta itxura pertsonalizatzea
Pantaila nagusia pertsonalizatzea
Doikuntza azkarrak
Direct Share




- **Atzera:** ukitu aurrekoa ◁ aurreko pantailara joateko.
- **Hasierako tekla:** ukitu hasierako tekla ○, hasierako pantailara itzultzeko.
- **Azkena erabiliak:** ukitu azkena erabiliak □, azkena erabilitako aplikazioak (edo nabigatzaileko fitxak bistaratzeko, eta ukitu aplikazio bat berriro irekitzeko. Ukitu bi aldiz azkena erabilitako aplikazio batetik bestera azkar joateko.

  **Oharra:** “Navegación con un botón” aukera aktibo badago, irristatu azkar hatza eskuinera bi aldiz, aplikazio batetik bestera joateko.

  Azkena erabilitako aplikazioen zerrendako aplikazio bat ezabatzeko, irristatu ezkerra edo eskuinera, edo ukitu ✕. Zerrendan, batetik bestera mugitzeko, irristatu gora edo behera.

  **Aholkua:** telefonoak eraginkortasunez funtzionatzeko, ez da beharrezkoa informazio orokorretik aplikazioak ezabatzea.
- **Pantaila zatitua:** azkena erabilitako aplikazioen zerrendan, luze sakatu aplikazio bat, eta, ondoren, arrastatu pantailaren goialdera bi aplikazio aldi berean ikusteko. Aplikazio guztiek ez dute funtzionatuko pantaila zatituan.
- **Menuak:** pantailan ⋮ edo ≡ agertzen denean, aukera duzu ukitzeko, uneko pantailaren aukerak ireki daitezen.
- **Teklatua ixtea:** Ukipen-pantailaren teklatua ixteko, ukitu ▽.

## Sakatu pizteko botoia.

Pizteko botoiak hainbat gauzatarako balio du:

- **Telefonoa itzaltzeko:** luze sakatu pizteko botoia, eta, gero, ukitu Apagar.
- **Egonean moduan jartzeko:** bateria aurrezteko, ustekabean teklarik ez ukitzeko edo ukipen-pantailako orbanak ezabatzeko, aktibatu ukipen-pantailaren modu etena, pizteko botoia sakatuz.
- **Telefonoa aktibatzeko:** sakatu berriro pizteko botoia.
- **Berrabiarazteko:** telefonoa berrabiarazteko, luze sakatu pizteko botoia, pantaila itzali eta telefonoa berrabiarazi arte.

**Aholkua:** telefonoa seguruagoa izan dadin, ikusi **“Konexioak eta transferentziak”**.

## Ukitu bolumen-botoiak

Bolumen-botoiek hainbat gauzatarako balio dute:

- **Tonuaren bolumena:** sakatu botoiak telefonoa jotzen ari denean, isilarazteko.
- **Entzungailuaren bolumena:** sakatu botoiak dei bat martxan dela.
- **Musikaren/bideoaren bolumena:** sakatu botoiak abesti bat edo bideo bat erreproduzitzen ari dela.

**Aholkua:** bolumen-kontrolari buruzko informazio gehiago izateko, ikusi **“Bolumena eta etenak”**.

Kontrola eta pertsonalizazioa
Azkar hastea: kontrola eta pertsonalizazioa
Kontrolak eta keinuak
Aktibatzea, desaktibatzea, blokeatzea eta desblokeatzea
Soinuak eta itxura pertsonalizatzea
Pantaila nagusia pertsonalizatzea
Doikuntza azkarrak
Direct Share

## Hitz egitea

Esan telefonoari zer nahi duzun.

**Aholkua:** naturaltasunez baina argi hitz egin, esku libreko gailua erabiltzean bezala.

- **Markaketa eta komandoak:** esan "OK Google" telefonoa ahots bidez kontrolatzeko. Ikusi **"Aplikazioak deskargatzea"**.

  Markatzeko, esan "Llamar" eta kontaktu baten izena edo telefono-zenbakia. Bestela, esan komando bat, adibidez, "Enviar mensaje de texto", "Ir a" eta aplikazioa, edota "Ayuda", ahots-komandoen laguntzara joateko.

  **Aholkua:** kontaktu batek zenbaki bat baino gehiago baditu, zer zenbakitara deitu esan dezakezu (adibidez, "Llamar a móvil de Jon Agirre" edo "Llamar a Maider Alberdi").
- **Bilaketa:** ukitu pantaila nagusian ahots bidez bilatzeko, edo esan "OK Google" ahots bidezko bilaketa sartzeko. Ahots-sarrera eta ahots-sintesiaren doikuntzak aldatzeko, irristatu gorantz > **Ajustes** > **Idioma y entrada de texto**.
- **Testua idaztea:** teklatuan, ukitu , eta, gero, diktatu zure mezua edo bilatu beharreko testua. Puntuazio-zeinuak ere esan ditzakezu.

**Aholkua:** zure telefonoak ozen irakur dezan, ikusi **"TalkBack"**.

## Aktibatzea, desaktibatzea, blokeatzea eta desblokeatzea

Ukipen-pantaila erabiltzean aktibatzen da, eta behar ez duzunean desaktibatzen da. Pantaila aktibatzeko, sakatu pizteko botoia.

- **Pantaila aktibatzea eta desaktibatzea:** sakatu pizteko tekla, pantaila aktibatzeko eta desaktibatzeko.
- **Pantaila blokeatzea:** pantaila desblokeatzeko, ukitu , eta arrastatu gorantz. Pantaila desblokeatzeko eredu bat, PIN bat edo pasahitz bat erabiltzeko, irristatu gorantz > **Ajustes** > **Seguridad** > **Bloqueo de pantalla** (ikusi **"Pantaila blokeatzea"**).

  Hatz-marka digitalen sentsorea ere erabil dezakezu zure telefonoan. Konfiguratu ondoren, blokeo-pantailan ikusi ahal izango duzu, ohiko blokeo-pantaila ikusi beharrean. Blokeatze-/desblokeatze-doikuntzak ikusteko, irristatu gorantz > **Ajustes** > **Seguridad** > **Huella digital**.
- **Jakinarazpenak:** ukitu bi aldiz jakinarazpen bat blokeo-pantailan, irekitzeko. Pasahitza sartzeko eskatuko dizu.

  **Aholkua:** blokeo-pantailan jakinarazpenak ez agertzeko, irristatu gorantz > **Ajustes** > **Notificaciones**, ukitu aplikazio bat, eta hautatu **En la pantalla de bloqueo** > **No mostrar notificaciones a todos.**
- **Jabearen informazioa:** Blokeo-pantailari mezu bat eransteko, irristatu gorantz > **Ajustes** > **Seguridad**, ukitu > **Mensaje en la pantalla de bloqueo.**

# Kontrola eta pertsonalizazioa


Kontrola eta pertsonalizazioa
Azkar hastea: kontrola eta pertsonalizazioa
Kontrolak eta keinuak
Aktibatzea, desaktibatzea, blokeatzea eta desblokeatzea
Soinuak eta itxura pertsonalizatzea
Pantaila nagusia pertsonalizatzea
Doikuntza azkarrak
Direct Share




**Aholkua:** Ez jarri mugikor-zenbakia harremanetarako informazio gisa, ahots-postontzira beste gailu baten bidez sartzeko aukerarik ez baduzu behintzat.

- **Pantailaren itxarote-denbora:** itxarote-denbora aldatzeko (pantaila automatikoki blokeatzeko denbora), irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Pantalla** > **Suspensión**.




## Soinuak eta itxura pertsonalizatzea

Pertsonalizatu soinu-doikuntzak eta telefonoaren pantaila:

- **Tonua eta jakinarazpenak:** irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Sonido**.
- **Bibrazio modua eta isilik modua:** telefonoak dar-dar egin dezan, aktibatu **vibración para llamadas**.

Sarrerako deien dei-tonuak desaktibatzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Sonido** > **Tono del teléfono** > **Ninguno**.

- **Kontaktu batentzako tonua:** kontaktu bati dei-tonu pertsonal bat esleitzeko, irristatu gorantz ^ > **Contactos**, ukitu kontaktua, eta, gero, ukitu ✎ > menua ⋮ > **Establecer tono**.
- **Pantailaren doikuntzak:** distira, animazioa eta pantailaren beste doikuntza batzuk aldatzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Pantalla**.
- **Birakaria:** aplikazio askotan, ukipen-pantailaren orientazioa aldatu egiten da telefonoa biratzean (bertikal-horizontal). Funtzio hori aktibatzeko edo desaktibatzeko, irristatu beherantz egoera-barra bi hatzekin, eta ukitu **Rotación automática** edo **Vertical**.
- **Hizkuntza eta eskualdea:** Menuaren hizkuntza eta eskualdea konfiguratzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Idioma y entrada de texto** > **Idiomas**.

## Pantaila nagusia pertsonalizatzea

Zure gogoko gauzetara azkar sartzeko, pertsonalizatu pantaila nagusia nahi duzun bezala.

- **Pantaila-atzealdea aldatzea:** luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat, eta ukitu **FONDOS DE PANTALLA**.
- **Pantaila nagusiko orri bat gehitzea:** arrastatu aplikazio bat pantaila nagusiaren eskuineko albora, barra zuri bat bistaratu arte. Orri bat baino gehiago gehi ditzakezu.

Kontrola eta pertsonalizazioa
Azkar hastea: kontrola eta pertsonalizazioa
Kontrolak eta keinuak
Aktibatzea, desaktibatzea, blokeatzea eta desblokeatzea
Soinuak eta itxura pertsonalizatzea
Pantaila nagusia pertsonalizatzea
Doikuntza azkarrak
Direct Share

- **Zuzeneko sarbideak eranstea:** irristatu gorantz ^, luze sakatu aplikazioa, eta arrastatu pantaila nagusiko orrietako batera.

  Aplikazio guztiak ikusteko , irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Aplicaciones**.
- **Lasterbideen karpetak sortzeak:** arrastatu lasterbide bat beste baten gainera. Gehitu lasterbide gehiago, lehenaren gainera eramanez. Karpetari izen bat jartzeko, ukitu, eta idatzi izen bat aplikazioen azpian.
- **Widgetak gehitzea:** Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat, ukitu **WIDGETS**, luze sakatu widget bat, eta arrastatu pantaila nagusira.
- **Widgeten tamaina aldatzea:** widget baten tamaina aldatzeko, luze sakatu bibrazioa sentitu arte, eta, ondoren, askatu. Tamaina aldatzeko, arrastatu ertzetan ageri diren zirkulu zuriak.
- **Widgetak eta lasterbideak mugitzea edo ezabatzea:** Luze sakatu widget edo lasterbide bat bibrazioa sentitu arte (edo ikonoa handituta ikusi arte, bibrazioa desaktibatuta badago). Ondoren, arrastatu beste leku edo orri batera edo ✕ **Eliminar** aukerara.

  **Oharra:** pantaila nagusitik lasterbidea ezabatzeak ez du esan nahi aplikazioa desinstalatu denik telefonotik.

## Doikuntza azkarrak

**WiFi, bluetooth, hegazkin modua** edo distiraren doikuntzetara bizkor sartzeko, irristatu beherantz egoera-barra edo blokeo-pantaila bi hatzekin. Doikuntza gehiago ikusteko, ukitu ⚙.

**Oharra:** Baliteke zure doikuntza azkarrek itxura desberdina izatea.




Ukitu **Editar** pantailaren beheko aldean, doikuntzak berrantolatu, gehitu edo kentzeko.

Kontrola eta pertsonalizazioa
Azkar hastea: kontrola eta pertsonalizazioa
Kontrolak eta keinuak
Aktibatzea, desaktibatzea, blokeatzea eta desblokeatzea
Soinuak eta itxura pertsonalizatzea
Pantaila nagusia pertsonalizatzea
Doikuntza azkarrak
Direct Share

## Direct Share

Aplikazio batzuetan, elementuak zuzenean parteka daitezke kontaktu batekin edo elkarrizketa batean. Aplikazio batean partekatzeko aukera hautatzen duzunean, kontaktuen zerrenda bat agertzen da, aplikazioen ikonoekin.

Hautatu kontaktua eta bidali.




Ukitu kontaktu bat, informazioa partekatzeko.

Irristatu hatza gorantz, partekatzeko aukera guztiak ikusteko.

# Irisgarritasuna

ikusi, entzun, hitz egin, sentitu.

Irisgarritasuna
Azkar hastea: irisgarritasuna
Ahotsa ezagutzea
TalkBack
Braille
Irisgarritasunerako lasterbideak
Deia identifikatzea Bolumena eta bibrazioa
Zooma
Pantailaren distira
Ukipen-pantaila eta teklak
Mezuak



## Azkar hastea: irisgarritasuna

Ikusi, entzun, hitz egin, sentitu eta erabili. Irisgarritasun-funtzioak denentzat daude eskuragarri, eta lanak erraztea dute helburu.

**Joan hona:** Irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Accesibilidad**

**Oharra:** Osagarriei edo bestelako alderdiei buruzko informazio orokorra eskuratzeko, ikusi www.motorola.com/accessibility.

### Ahotsa ezagutzea

Besterik gabe, esan telefonoari zer egin nahi zenukeen: deitu, nabigatu, bilatu, mezu bat bidali edo beste edozein ekintza. Ukitu 🎤 pantaila nagusiaren goiko aldean, ahots bidezko bilaketa bat egiteko.

### TalkBack

Erabili TalkBack pantaila ozen irakurtzeko: nabigazioak, hautaketak edota liburuak.

TalkBack aktibatzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ > **Ajustes** > **Accesibilidad** > **TalkBack** eta, gero, ukitu etengailua, aktibatzeko.

**Oharra:** baliteke testua ahots bihurtzeko software bat deskargatu behar izatea (karguak aplika litezke).

- **Ukitu** pantailako elementuren bat, deskribapen bat entzuteko edo testua ozen irakurtzeko.
- **Ukitu bi aldiz** pantailaren edozein leku, ukitu duzun azken elementua irekitzeko edo aktibatzeko.
- **Irristatu** bi hatz erabiliz, zerrendetan edo pantailen artean mugitzeko.

**Aholkua:** Nabigatu aplikazioetan eta menuetan, zure telefonoan ahots-irakurketak nola funtzionatzen duen entzuteko.

TalkBack desaktibatzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ > **Ajustes** > **Accesibilidad** > **TalkBack** eta, gero, ukitu etengailua, desaktibatzeko.

### Braillea

Konbinatu braille-pantaila TalkBackekin, informazioa braillean lortzeko eta ahots-iruzkinak lortzeko.

1. Deskargatu BrailleBack™ aplikazioa Google Playtik (ukitu ▶ **Play Store**) eta instalatu telefonoan.
2. Irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Accesibilidad** > **BrailleBack**
3. Aktibatu braille-pantaila, eta jarri aktibatu bluetootha sinkronizazio-moduan.
4. Telefonoan, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Bluetooth** eta, gero, ukitu etengailua goiko partean, aktibatzeko eta bilatzen hasteko.
5. Ukitu braille-pantailaren izena, telefonoarekin sinkronizatzeko.

### Irisgarritasunerako lasterbideak

Erabili keinu errazak, TalkBack eta irisgarritasuneko beste funtzio batzuk telefonoan bizkor aktibatzeko. Informazio gehiago lortzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Accesibilidad** > **Directo a accesibilidad**.

# Irisgarritasuna


- **Erreproduzitzea, partekatzea edo ezabatzea:** ukitu miniatura bat, irekitzeko, eta, ondoren, ukitu partekatzeko, ezabatzeko edo menua , aukera osagarriak ikusteko.

  **Aholkua:** fitxategi bat baino gehiago hautatzeko, ireki karpeta bat, luze sakatu argazki bat, eta, gero, hautatu argazki gehiago. Album batean ere multzokatu ditzakezu argazkiak, eta album osoa partekatu.

- **Zooma:** ireki galeriako argazki bat, eta, ondoren, bi aldiz ukitu edo bereizi edo hurbildu bi hatzak pantailan.

  **Aholkua:** biratu telefonoa ikuspegi panoramikoa lortzeko.

- **Argazki bat pantaila-atzealde gisa edo kontaktu-argazki gisa jartzea:** Ireki irudi bat, eta, gero, ukitu menua > **Usar como** > **Fondo de pantalla** edo **Foto de contacto**.
- **Editatzea:** ireki irudi bat, eta, jarraian, ukitu .
- **Aurkezpena:** Hautatu irudi bat, eta, jarraian, ukitu menua > **Presentación**. Aurkezpena geldiarazteko, sakatu pantaila.

  **Aholkua:** aurkezpena telebista batean edo beste gailu batean erreproduzitzeko, ikusi **“Konexioak eta transferentziak”**.

Argazkiak eta bideoak
Azkar hastea: argazkiak eta bideoak
Argazkiak ateratzea
Bideoak grabatzea
Argazki hobeezina egitea
Argazkiak eta bideoak ikustea, modu partekatuan erabiltzea edo erabiltzea
Pantaila-argazkia hartzea

## Pantaila-argazkia hartzea

Partekatu gogoko erreprodukzio-zerrendaren, puntuazio berri altuenaren edo lagun baten kontaktu-informazioaren pantaila-irudia.

Telefonoaren pantaila-irudia hartzeko, luze sakatu pizteko tekla eta bolumena jaisteko tekla, biak batera.

Pantaila-argazkiak ikusteko, ukitu **Fotos**, ukitu ≡, eta, gero, ukitu **Carpetas del dispositivo** > **Capturas de pantalla**.

**Aholkua:** Ikusi, halaber, **"Pantailan finkatzeko funtzioa"**.

Play Música
Azkar hastea: musika


## Azkar hastea: musika

Musika edonon dago, eta, orain, entzun, erosi, gorde eta erreproduzitu egin dezakezu. Sortu erreprodukzio-zerrendak edonoiz.

**Joan hona:** irristatu gorantz ^ > **Play Música**

Zure musika-liburutegia ordenagailua erabiliz Google Play Músican kargatzeko, ikusi www.google.com/music.

Ukitu **Escuchar ahora**, aholkuak eta askoz gehiago ikusteko.

**Aholkua:** partekatu abestiak zuzenean zure kontaktuekin. Ukitu menua ⋮ abesti baten ondoan > **Compartir**. Ikusi **"Direct Share"**.




## Aholkuak eta iradokizunak

- **Volumen:** ukitu bolumen-botoiak.
- **Musika-erreproduzitzailea ezkutatzea:** musika erreproduzitzen ari zaren bitartean beste aplikazio bat erabiltzeko, ukitu Hasi ○. Musika-erreproduzitzailera itzultzeko, irristatu egoera-barra beherantz, eta hautatu abestiaren izenburua.

  **Aholkua: Siguiente**, **Pausar** edo **Anterior** ere hauta ditzakezu jakinarazpen-barra beherantz irristatuz edo desblokeo-pantailako kontrolak erabiliz.
- **Pantaila nagusiko widgeta:** musika-erreproduzitzailea pantaila nagusitik kontrolatzeko, gehitu **Google Play Música** widgeta.
- **Erreprodukzio-zerrendak:** Ukitu menua ⋮ liburutegiko abesti baten ondoan, erreprodukzio-zerrenda batera gehitzeko edo aukera gehiago bistaratzeko. Erreprodukzio-zerrenda bat editatzeko, ezabatzeko edo izenez aldatzeko, luze sakatu haren izena musika-liburutegian.
- **Deskargatu zure musika-liburutegia konexiorik gabe entzuteko:** Deskargatzeko, ukitu ⬇ abesti, artista, album edo erreprodukzio-zerrenda baten ondoan. Konexiorik gabe entzuteko, ukitu ☰ eta, gero, **Solo descargadas**, daturik ez erabiltzeko musika-liburutegia streamingean erabiltzean.
- **Hegaldietan:** Hegazkin moduan musika konexiorik gabe entzun dezakezu, eta konexio guztiak deskonektatzen ditu. Irristatu egoera-barra beherantz bi hatzekin, eta ukitu Modo avión, aktibatzeko.

Play Música
Azkar hastea: musika


- **Fitxategi-motak:** telefonoak MP3, AAC, AAC+ eta MIDI fitxategi-motak erreproduzi ditzake.

**Oharra:** copyright, badituzu eskubideak? Bete itzazu beti arauak. Ikusi **“Edukiaren egile-eskubideak”**, telefonoaren lege- eta segurtasun-informazioan.

Kokapena eta nabigazioa
  Azkar hastea: kokapena eta nabigazioa


## Azkar hastea: kokapena eta nabigazioa

Aurkitu hurbil dagoen jatetxe bat, eta lortu argibideak edo urratsez urratseko GPS nabigazioa Google Maps™ aplikazio ezagunaren bidez, zeina konfiantza osokoa baita.

**Joan hona:** irristatu gorantz ^ > **Mapas**

Idatzi bilatu nahi duzuna bilaketa-barran, eta ukitu 🎤, informazio eta aukera gehiago eskuratzeko.

**Oharra:** baliteke zure mapa-pantailak beste itxura bat izatea.




## Aholkuak eta iradokizunak

- **Now on Tap™:** maparen pantailan, luze sakatu hasierako tekla ◯, uneko mapan oinarritutako informazioa ikusteko. Ikusi **“Pantailako bilaketa”**.
- **Helbide bat bilatzea:** Bilaketa-eremuan, idatzi helbide bat edo bilatzen ari zaren zerbait; jatetxe bat, adibidez. Mapa mugitu egiten da, helbidea edo tokiko iradokizunak bistaratzeko. Ukitu pantailaren beheko helbide-orria, xehetasun gehiago lortzeko.
- **Argibideak lortzea:** ukitu ◆, eta sartu toki edo helbide bat.
- **Helbide bat gordetzea:** ukitu helbidearen informazio-orria pantailaren behealdean, eta, jarraian, ukitu **GUARDAR**.
- **Zoom egitea:** irudia handitzeko edo txikitzeko, hurbildu edo bereizi bi hatzak pantailan.
- **Biratzea eta okertzea:** biratu bi hatzak mapan, gorantz edo beherantz biratzeko edo okertzeko.
- **Kokapenak partekatzea:** ukitu kokapen bat, hautatu helbidea, eta, gero, ukitu menua ⋮ > **Compartir**.
- **Helbide bat identifikatzea:** luze sakatu mapako puntu bat, helbiderik hurbilena bistaratzeko.
- **Maparen laguntza lortzea:** ukitu ☰ > **Ayuda**.

# Konexioak eta transferentziak

kable bidezkoak edo haririk gabekoak


Konexioak eta transferentziak
- Azkar hastea: konexioak eta transferentziak
- Haririk gabeko bluetootha
- WiFi sareak
- USB kableak
- Zure datu-konexioen erabilera partekatua
- NFC (Moto G5 Plus bakarrik)
- Datuak erabiltzea
- Hodeia
- Telefonoa eta tableta
- Memoria-txartela
- Sare pribatu birtualak (VPN)
- Sare mugikorra
- Hegazkin modua


## Azkar hastea: konexioak eta transferentziak

Konektatu osagarriak, ordenagailuak, sareak eta askoz gehiago.

**Joan hona:** irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes**




## Aholkuak eta iradokizunak

- **Doikuntza azkarrak:** gehien erabiltzen dituzun doikuntzetara berehala heltzeko. Irristatu egoera-barra beherantz bi hatzekin. Ikusi **"Doikuntza azkarrak"**.
- **Bluetootha darabilten gailuak:** entzungailuak, teklatuak edo beste gailu batzuk bluetooth bidez konektatzeko, ukitu Bluetooth.
- **WiFi sareak:** konektatzeko, ukitu **Wi-Fi.**
- **WiFi gunea:** Zure telefonoa WiFi gune mugikor bihurtzeko, ikusi **"WiFi gunea"**.
- USB kablea: telefonoko microUSB ataka erabil dezakezu multimedia-fitxategiak eta beste fitxategi batzuk trukatzeko konektatutako ordenagailu batekin. USB konexio-mota aldatzeko, ikusi **"USB kableak"**.
- **Konexio automatikoak:** bluetootha edo WiFi konexioa aktibatuta dagoenean, telefonoa automatikoki konektatuko da, berriro ere, lehen erabili duen eta erabilgarri dagoen edozein sare edo gailutara.
- **Hegazkin modua:** haririk gabeko konexioak azkar-azkar itzali behar dituzu? Irristatu egoera-barra beherantz bi hatzekin, eta ukitu **Modo avión** ✈.
- **Inprimatzea**: argazkiak, dokumentuak edo beste elementu batzuk inprimatu nahi dituzu? Ikusi **"Inprimatzea"**.

Konexioak eta transferentziak
Azkar hastea: konexioak eta transferentziak
Haririk gabeko bluetootha
WiFi sareak
USB kableak
Zure datu-konexioen erabilera partekatua
NFC (Moto G5 Plus bakarrik)
Datuak erabiltzea
Hodeia
Telefonoa eta tableta
Memoria-txartela
Sare pribatu birtualak (VPN)
Sare mugikorra
Hegazkin modua



# Haririk gabeko bluetootha

## Bluetootha aktibatzea eta desaktibatzea

**Joan hona:** Irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Bluetooth** eta, gero, ukitu etengailua, aktibatzeko.

**Oharra:** irristatu beherantz egoera-barra bi hatzekin, bluetooth-konexioa bizkor aktibatzeko eta desaktibatzeko.

Aholkua: bateriaren iraupena luzatzeko edo konexioak geldiarazteko, itzali bluetooth-konexioa erabiltzen ari ez zarenean.

## Gailuen konexioa

Bluetootha darabilen gailu bat konektatzen duzun **lehen aldian**, jarraitu hemen azaltzen diren urratsei:

1 Ziurtatu sinkronizaziorako erabiltzen ari zaren gailua ikusgai dagoela (ikusi gailuak zekarren eskuliburua, informazio gehiago eskuratzeko).

2 Irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Bluetooth**.

3 Egiaztatu etengailua aktibatuta dagoela.

4 Hautatu aurkitutako gailu bat, konektatzeko (behar izanez gero, ukitu **VINCULAR** , edo idatzi pasahitza, hala nola **0000**).

**Aholkua:** ukitu ⚙ gailuaren izena aldatzeko.

Gailua konektatzen denean, bluetootha konektatuta ✱ dagoela dioen adierazlea agertuko da pantailaren goiko aldean.

Gailu bat, hala nola haririk gabeko entzungailu batzuk, edonoiz **deskonektatzeko** eta automatikoki **konektatzeko**, gailua itzali eta piztu besterik ez duzu egin behar

**Oharra:** gidatzen duzun bitartean osagarri edo gailu mugikor bat erabiltzeak arreta galaraz dezake, eta debekatuta dago. Errespetatu beti legeak, eta gidatu era seguru batean.

## Gailuen kudeaketa

Telefonoa sinkronizatutako gailu batekin eskuz berriro konektatzeko, hautatu gailuaren izena zerrendan.

Telefonoa elkartutako gailu batetik eskuz deskonektatzeko, hautatu gailuaren izena zerrendan, eta, jarraian, ukitu **Aceptar**.

Elkartutako gailu bat ezabatzeko, ukitu ⚙, zeina gailuaren izenaren ondoan baitago, eta, jarraian, ukitu **OLVIDAR**.

Telefonoak beste gailu batzuei erakusten dien izena aldatzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Bluetooth**, aktibatu bluetootha, eta, gero, ukitu menua ⋮ > **Cambiar nombre del dispositivo**. Idatzi izen bat, eta ukitu **CAMBIAR NOMBRE**.

## Utzi beste gailu batzuei zure telefonoa bila dezaten

Bluetooth gailu batek zure telefonoa detektatzeko, ukitu telefonoaren bluetooth-etengailua, pizteko.

Konexioak eta transferentziak
Azkar hastea: konexioak eta transferentziak
Haririk gabeko bluetootha
WiFi sareak
USB kableak
Zure datu-konexioen erabilera partekatua
NFC (Moto G5 Plus bakarrik)
Datuak erabiltzea
Hodeia
Telefonoa eta tableta
Memoria-txartela
Sare pribatu birtualak (VPN)
Sare mugikorra
Hegazkin modua



### Fitxategiak transferitzea

- **Argazkiak edo bideoak:** ireki argazkia edo bideoa, eta, gero, ukitu > **Bluetooth**.
- **Kontaktuak:** irristatu gorantz > **Contactos**, hautatu pertsona bat, eta, gero, ukitu menua > **Compartir** > **Bluetooth**.

## WiFi sareak

### WiFi konexioa aktibatzea eta desaktibatzea

**Joan hona:** Irristatu gorantz > **Ajustes** > **Wi-Fi** eta, gero, ukitu etengailua, aktibatzeko.

**Oharra:** irristatu beherantz egoera-barra bi hatzekin, WiFi konexioa bizkor aktibatzeko eta desaktibatzeko.

### Sareetako konexioa

Irismenaren barruan sareak bilatzeko:

1 Irristatu gorantz > **Ajustes** > **Wi-Fi**.

**Aholkua:** Telefonoaren WiFi doikuntzak bistaratzeko, ukitu menua > **Avanzados**.

2 Egiaztatu WiFia aktibatuta dagoela.

3 Hautatu aurkitutako sare bat, konektatzeko (behar izanez gero, bete **SSID de red**, **Seguridad** eta **Contraseña de red inalámbrica** eremuak, eta, gero, ukitu **Conectar**).

Telefonoa konektatuta dagoenean, WiFi-aren egoera-ren adierazlea, , agertzen da egoera-barran. **Oharra:** galdera-ikur bat ikusten baduzu WiFi-aren egoeraren adierazlean, , zabaldu egoera-barra, hautatu sarea, eta idatzi sarearen pasahitza.

**Aholkua:** WiFi konexioa aktibatua dagoenean, telefonoa automatikoki konektatzen da lehen erabili izan dituen eta erabilgarri dauden sareetara. Bideratzaileak ez badu Interneteko konexiorik, telefonoa ez da automatokiko konektatuko.

### WiFi gunea

Telefonoa WiFi eremu bihur dezakezu, modu mugikor eta praktikoan sarbidea izateko Internetera eta aktibatutako beste WiFi gailu batzuetara. Baliteke operadoreak harpidetza gehigarri bat egiteko eskatzea funtzio horretarako.

**Oharra:** Segurtasuna lehendabizi. Inor baimenik gabe zure telefonoan eta zure WiFi gunean sar ez dadin, komeni da segurtasun-metodoren bat konfiguratzea (WPA2 da seguruena), eta pasahitza erabiltzea.

**Joan hona:** Irristatu gorantz > **Ajustes** > **Más** > **Módem y zona Wi-Fi** eta, gero, ukitu **Zona Wi-Fi móvil**

**Oharra:** urrats horiek desberdinak izan daitezke sarearen arabera.

1 Telefonoak deskonektatu egiten du WiFi-a, eta sare mugikorra erabiltzen du Internetera konektatzeko. Ukitu **Configurar zona Wi-Fi**, segurtasuna konfiguratzeko:

- **Sarearen SSIDa:** sartu izen bakar bat zure WiFi gunerako.
- **Segurtasuna:** aukeratu erabili nahi duzun segurtasun-mota. **Ninguno** edo **WPA2 PSK**. **WPA2 PSK** aukerarako, sartu pasahitz bakar bat, beste erabiltzaileek ere zure WiFi eremura sartzeko beharko dutena.

  **Oharra: WPA2 PSK** segurtasuna gomendatzen du IEEEk.
- **Pasahitza:** sortu gutxienez zortzi karaktereko pasahitz bat.

2 Ukitu **GUARDAR**, doikuntzak bukatutakoan.

**Konexioak eta transferentziak**
- Azkar hastea: konexioak eta transferentziak
- Haririk gabeko bluetootha
- WiFi sareak
- USB kableak
- Zure datu-konexioen erabilera partekatua
- NFC (Moto G5 Plus bakarrik)
- Datuak erabiltzea
- Hodeia
- Telefonoa eta tableta
- Memoria-txartela
- Sare pribatu birtualak (VPN)
- Sare mugikorra
- Hegazkin modua



WiFi eremua aktibo dagoenean, WiFi-a aktibatua duten beste gailu batzuk ere konekta daitezke zure guneko **sare-izena** sartuz, **segurtasun**-mota bat hautatuz eta haririk gabeko sarearen **pasahitz** zuzena idatziz.

### WiFi moduak

Datu teknikoen zale direnek jakin bezate telefonoa bateragarria dela WiFi modu hauekin:

802.11 a, b, g, n.

## USB kableak

**Oharra:** copyright, badituzu eskubideak? Bete itzazu beti arauak. Ikusi **"Edukiaren egile-eskubideak"**, telefonoaren lege- eta segurtasun-informazioan.

Musika, irudiak, bideoak, dokumentuak edo beste fitxategi batzuk ordenagailutik igotzeko, konektatu telefonoa ordenagailura, USB kable baten bidez. USB konexio mota aldatzeko (beharrezkoa izanez gero), irristatu beherantz egoera barra, eta ukitu **USB**.

**Aholkua:** Ziurtatu telefonoa potentzia handiagoko USB ataka batera konektatzen duzula. Normalean, ordenagailuaren aurrealdean egoten dira.

**Oharra:** USB konexioa erabiltzen duzun lehen aldian, baliteke ordenagailuak esatea kontrolagailuak instalatzen ari direla. Segitu instalazioa burutzeko erakusten diren jarraibide guztiei. Baliteke prozesu horrek minutu batzuk behar izatea.

- Microsoft® Windows®-rako: ordenagailuan, hautatu Hasi, eta, ondoren, hautatu Windows arakatzailea, programen zerrendan. Telefonoa unitate konektatu gisa (biltegiratze masiboko gailu gisa) azalduko da Windows arakatzailean, eta fitxategiak hara arrastatu ditzakezu. MTP edo PTP gailu gisa ere azaldu daiteke. Hala, fitxategiak transferitzeko erabil daiteke Windows Media erreproduzitzailea. Kontrolagailuen fitxategi edo argibide gehiago lortzeko, ikusi www.motorola.com/support.
- Apple™ Macintosh™-rako: erabili Android File Transfer; hemen dago eskuragarri www.android.com/filetransfer.

## Zure datu-konexioen erabilera partekatua

Zure ordenagailua Internetera konekta daiteke zure telefonoaren sare mugikorraren bidez, USB kable batekin.

**Aholkua:** WiFi konexioa partekatzeko, ikusi **"WiFi gunea"**.

1 Konektatu zure telefonoa ordenagailura USB kable baten bidez.

**Oharra:** Ordenagailuak Microsoft® Windows® 7 edo Apple™ Macintosh™ OSX baino lehenagoko sistema eragile bat badu, baliteke konfigurazio berezia behar izatea.

2 Telefonoan, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes**, eta, ondoren, ziurtatu **WiFi** etengailua desaktibatuta dagoela.

3 **Ajustes** atalean, ukitu **Más** > **Módem y zona Wi-Fi**, eta, ondoren, ukitu **Módem USB**, konexioari ekiteko.

Konexioak eta transferentziak
Azkar hastea: konexioak eta transferentziak
Haririk gabeko bluetootha
WiFi sareak
USB kableak
Zure datu-konexioen erabilera partekatua
NFC (Moto G5 Plus bakarrik)
Datuak erabiltzea
Hodeia
Telefonoa eta tableta
Memoria-txartela
Sare pribatu birtualak (VPN)
Sare mugikorra
Hegazkin modua

Menua Gehiago
Atzera Hurrengoa

Konexioa geldiarazteko, desautatu **Módem USB**, eta, ondoren, deskonektatu telefonoa ordenagailutik.

## NFC (Moto G5 Plus bakarrik)

NFC teknologiaren bidez (eremu hurbileko komunikazioa), telefonoaren elementu bat (web-estekak, kontaktuak eta argazkiak, adibidez) berehala parteka daiteke, telefonoaren atzealdea NFC duen beste gailu baten kontra jarrita.

**Oharra:** NFC ez dago erabilgarri ez eremu guztietan, ez telefono-modelo guztietan.

**Joan hona:** irristatu gorantz ^ > **Ajustes** > **Más** > **NFC**

### Android Beam™-ekin partekatzea

Android Beam-en bidez, zure telefonoko edukia NFC duten beste telefono edo tableta batzuekin parteka dezakezu.

**Oharra:** beste gailuak ere bateragarria izan behar du NFCrekin.

1 Ireki partekatu nahi duzun elementua duen pantaila.
2 Jarri zure telefonoaren atzealdea beste gailuaren atzealdearen kontra.

Gailuak konektatutakoan, Toca para compartir mezua agertuko da telefonoan.

3 Ukitu pantaila, elementua partekatzeko.

### NFC bidez jasotzea

NFC etiketen bidez, web-esteka, kupoi elektronikoak, liburuxkak, mapak eta gauza askoz gehiago jaso daitezke. Bilatu NFC logotipoa karteletan, seinaleetan, erakustokietan eta beste leku batzuetan.

Etiketaren informazioa jasotzeko, nahikoa duzu telefonoaren atzealdea logotipoa ukitzen jartzea.

### Ukipen bidezko bluetootha eta WiFi-a konfiguratzea

Zure gailua NFCrako gaituta dauden bluetooth bidezko gailu batekin edo WiFi sarbide-puntu batekin konektatzeko, nahikoa da elkar ukituz jartzea.

### Mugikorraren bidez ordaintzea

Ordainketa seguruko aplikazio bat erabil dezakezu erosten dituzun erosketak ordaintzeko (zerbitzu hori erabilgarri badago eta bateragarria bada).

Bilatu NFC logotipoa, mugikorraren bidez ordaindu dezakezula baieztatzeko. Ordainketa egiteko, jarri telefonoaren atzealdea kobrantza-gailuaren kontra. Baliteke hatz-marka digitalaren edo pasahitzaren bidez autentifikatu behar izatea erosketa.

### Segurtasuna

Mugikorraren bidez ordaintzeko, haririk gabeko konexioetarako eta edukiak partekatzeko, segurtasuna behar da:

- **Irismena:** NFCk oso irismen txikia du (4 m inguru); beraz, nekez egongo dira ustekabeko konexioak. Bestalde, horrelakorik gertatuz gero, konexioa onartu egin behar da informazioa bidali eta jaso ahal izateko.
- **Zifratzea:** Segurtasun-, zifratze- eta autentifikatze-funtziorik aurreratuenak ditu telefonoak, zure datu pertsonalak babesteko mugikorraren bidez ordainketak egitean edo edukia partekatzean.

Konexioak eta transferentziak
Azkar hastea: konexioak eta transferentziak
Haririk gabeko bluetootha
WiFi sareak
USB kableak
Zure datu-konexioen erabilera partekatua
NFC (Moto G5 Plus bakarrik)
Datuak erabiltzea
Hodeia
Telefonoa eta tableta
Memoria-txartela
Sare pribatu birtualak (VPN)
Sare mugikorra
Hegazkin modua



## Datuak erabiltzea

Telefonoan kargatzen eta deskargatzen duzun datu-kopuruaren jarraipena egin dezakezu.

**Joan hona:** irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Uso de datos** > **Uso de datos móviles**

Datuen erabilera adierazten duen grafiko bat bistaratzen du telefonoak. Grafikoaren azpian, datu gehien erabiltzen duenetik gutxien erabiltzen dituenera ordenatuta agertzen dira aplikazioak. Datu asko erabiltzen dituzten aplikazioek bateria asko kontsumitzen dute batzuetan.




Goiburuak uneko fakturazio-zikloaren datak bistaratzen ditu.

Ikusi planeko zenbat datu erabili dituzun (guztizkoa eta ehunekoa) aldi horretan.

Kudeatu ziklo horretan daturik gehiena erabiltzen duten aplikazioak.

Aplikazio batzuek bigarren mailan transferitzen dituzte datuak haiek erabiltzen ari ez denean. Aplikazio batek hori ez dezan egin, sakatu aplikazioa, eta desaktibatu **Conexiones automáticas**.

**Oharra:** telefonoa kudeatzen laguntzeko ematen zaizu erabilera-informazioa. Baliteke informazio hori bat ez etortzea zerbitzu-hornitzaileak kobratzen dituen zenbatekoekin, ez baitira modu berean neurtzen.

## Hodeia

Edozein lekutatik (telefonoa, tableta eta ordenagailua) denerako sarbidea ematen duen kontua.

### Googleko kontua sinkronizatzea

Googleko kontu berean saioa hasten bada, gailu guztiak sar daitezke Google Play™ko aplikazio, film, liburu eta abesti beretara, eta Gmail, Google Calendar™ eta Google Mobile™ren gainerako zerbitzu mugikorrak parteka ditzakete. Telefonoari kontuak gehitzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Cuentas** > **Añadir cuenta** > **Google**.

### Telefonoa eta tableta

Android telefonoak eta tabletak batera lan egin dezakete, zuk ahalik eta etekin handiena atera diezaiezun:

- **Fitxategiak eta multimedia-fitxategiak transferitzea:** fitxategiak telefonora kopiatu eta beste gailu batzuetara transferitzeko aukera duzu. Ikusi **"Fitxategiak transferitzea"**.
- **WiFi gunea:** WiFi-a duen tableta bat badaukazu, konfiguratu telefonoa WiFi gune gisa zure tabletatik Internetera sartu ahal izateko edozein lekutatik. Ikusi **"WiFi gunea"**.
- **Bluetooth®-erako osagarriak:** zure tabletarekin bluetootha darabilen teklatu bat edo beste edozein osagarri erabiltzen baduzu, gogoan izan telefonoan ere erabil ditzakezula. Konektatzeko, ikusi **"Haririk gabeko bluetootha"**.

Konexioak eta transferentziak
Azkar hastea: konexioak eta transferentziak
Haririk gabeko bluetootha
WiFi sareak
USB kableak
Zure datu-konexioen erabilera partekatua
NFC (Moto G5 Plus bakarrik)
Datuak erabiltzea
Hodeia
Telefonoa eta tableta
Memoria-txartela
Sare pribatu birtualak (VPN)
Sare mugikorra
Hegazkin modua

Menua Gehiago
Atzera Hurrengoa

## Memoria-txartela

MicroSD txartela biltegi eramangarri gisa edo barne-biltegi gisa erabil dezakezu:

- **Biltegi eramangarria:** gorde zure irudiak, bideoak, audio-fitxategiak eta beste multimedia-fitxategi batzuk. Edonoiz atera dezakezu microSD txartela eta beste gailu batera transferitu.
- **Barne-biltegia:** multimedia-fitxategiez gain, deskargatutako aplikazioak eta jokoak gorde ditzakezu. MicroSD txartela telefonoaren barne-biltegiaren osagarri bat da.

MicroSD txartel bat sartzen duzunean telefonoan, biltegi-eramangarria edo barne-biltegia aukeratzeko eskatuko dizu.

MicroSD txartela barne-biltegi gisa eskuz definitzeko, irristatu ^ > ⚙ > **Ajustes** > **Almacenamiento**; gero, hautatu microSD txartela, eta ukitu menua ⋮ > **Ajustes** > **Formatear como interno**.

**Kontuz:** microSD txartela barne-biltegi gisa ezarri baduzu, formateatu eta zifratu egiten da zure datuak babesteko. Biltegi-eramangarri gisa edo beste gailu batean erabili nahi baduzu, formateatu egin behar duzu. Hori egin aurretik, gogoan izan formateatze-prozesuak microSD txartelean gordetako datu guztiak ezabatuko dituela.

**Aholkua:** Erabili 10. Klaseko microSD txartel bat, erabiltzaile-esperientzia onena lortzeko.

**Oharra:** telefonoa bateragarria da 128 GBra arteko microSD txartelekin.

### Memoria-txartela instalatzea eta desinstalatzea

MicroSD txartel bat jartzeko, telefonoan txertatu besterik ez duzu egin behar (ikusi Memoria-txartelak edo **SIM txartelak txertatu behar badituzu, ireki SIM txartelaren erretilua**).

MicroSD txartela desaktibatzeko (telefonotik erauzteko), irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Almacenamiento** > **Tarjeta SD**. Ondoren, ukitu ⏏ microSD txartelaren izenaren ondoan.

**Kontuz:** ez atera microSD txartela telefonoa erabiltzen ari zaren bitartean edo txartelean fitxategiak idazten ari zaren bitartean.

### Memoria-txartelaren edukia ezabatzea eta txartela formateatzea

MicroSD txarteleko eduki osoa ezabatzeko (musika, argazkiak eta fitxategiak) eta txartela berriro formateatzeko, irristatu gorantz ^ > **Ajustes** > **Almacenamiento**, ukitu microSD txartela, eta azkenik, ukitu menua ⋮ > **Ajustes de almacenamiento** > **Formatear**.

## Sare pribatu birtualak (VPN)

VPNek aukera ematen dute fitxategietara sare seguru baten bidez sartzeko (suebakia duen bulegoko sare bat, adibidez). Jarri harremanetan sarearen administratzailearekin VPNaren doikuntzei eta behar diren gaineko aplikazio edo eskakizunei buruz galdetzeko.

**Konexioak eta transferentziak**
- Azkar hastea: konexioak eta transferentziak
- Haririk gabeko bluetootha
- WiFi sareak
- USB kableak
- Zure datu-konexioen erabilera partekatua
- NFC (Moto G5 Plus bakarrik)
- Datuak erabiltzea
- Hodeia
- Telefonoa eta tableta
- Memoria-txartela
- Sare pribatu birtualak (VPN)
- Sare mugikorra
- Hegazkin modua

Menua Gehiago
Atzera Hurrengoa

VPNaren doikuntzak sartzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ > **Ajustes** > **Más** > **VPN**. Ukitu + VPN berri bat gehitzeko. Aukeratu VPN-mota, eta sartu sarearen administratzaileak emandako doikuntzak. Sarea **VPN** zerrendan gordetzen da, hara konektatu behar duzunean aukeratu ahal izan dezazun.

## Sare mugikorra

Ez da beharrezkoa sarearen doikuntzak aldatzea. Informazio gehiago nahi baduzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Sare-doikuntzen aukerak ikusteko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Más** > R**edes móviles**.

**Oharra:** Zure telefonoak sare gehienak onartzen ditu. Informazio gehiago nahi baduzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

## Hegazkin modua

Erabili hegazkin-modua haririk gabeko konexio guztiak desaktibatzeko hegazkinean bidaiatzen ari zaren bitartean. Irristatu egoera-barra beherantz bi hatzekin, eta ukitu **Modo avión** ✈.

**Oharra:** Hegazkin-modua hautatzean, desaktibatu egiten dira haririk gabeko zerbitzu guztiak. WiFi-a edo bluetootha aktibatu dezakezu, aire-lineak hala egiteko baimena ematen badu. Haririk gabeko beste ahots- eta datu-zerbitzu batzuek (deiak eta testu-mezuak, adibidez) desaktibatuta jarraituko dute hegazkin-moduan. Zure herrialdeko larrialdi-zenbakira deitu ahal izango duzu, hala ere.

# Segurtasuna

babestu zure telefonoa

**Segurtasuna**
- **Azkar hastea: babestu zure telefonoa**
- **Pantaila blokeatzea**
- **Pantailan finkatzeko funtzioa**
- **Telefonoa zifratzea**
- **Segurtasun-kopiak egitea eta leheneratzea**
- **Berrezartzea**
- **Telefonoa lapurtu dizute?**

## Azkar hastea: babestu zure telefonoa

Ziurtatu informazioa babestua duzula telefonoa galtzen den edo lapurtzen duten kasuetarako.

**Joan hona:** irristatu gorantz > **Ajustes** > **Seguridad**

Zure telefonoa babesteko modu errazena **Bloqueo de pantalla** aukera erabiltzea da. Desblokeatzeko, hatz bat irristatzea aukeratu dezakezu (ez da hain segurua) edo eredu bat, PIN bat edo pasahitz bat sartzea.




Pantaila desblokeatzeko sistema gisa eredu bat, pasahitz bat edo beste aukera batzuk erabil ditzakezu.

Telefonorako zifratze-konfigurazioa administratzeko.

## Pantaila blokeatzea

Telefonoa babestuta mantentzeko, ukipen-pantaila modu etenera sartzean blokea dadin konfigura dezakezu.

**Joan hona:** Irristatu gorantz > **Ajustes** > **Seguridad** > **Bloqueo de pantalla** eta, gero, hautatu blokeo-mota:

- **Ninguno:** pantailaren blokeoa desaktibatzeko.
- **Deslizar:** ukitu eta arrastatu gorantz, desblokeatzeko.
- **Patrón:** marraztu eredu bat pantaila desblokeatzeko.
- **PIN:** sartu gutxienez 4 eta gehienez 16 digitu, pantaila desblokeatzeko.
- **Contraseña:** sartu gutxienez 4 eta gehienez 16 letra, digitu edo sinbolo, pantaila desblokeatzeko.

Ukipen-pantaila modu etenean sartzeko unea aldatzeko, irristatu gorantz > **Ajustes** > **Pantalla** > **Suspender**

**Oharra:** larrialdi-deiak egin ditzakezu blokeatutako telefono batetik (ikusi **"Larrialdi-deiak"**). Telefonoa blokeatuta egonda ere, jo egiten du, eta ez duzu PINa edo pasahitza sartu beharrik deiei erantzuteko.

### Ezin duzu telefonoa desblokeatu?

**Eredua, PINa edo pasahitza:** eredua, PINa edo pasahitza ahaztu baduzu, Google™-eko kontuko helbide elektronikoa eta pasahitza sar ditzakezu beste telefono batean telefonoa desblokeatzeko.

**Segurtasuna**
- Azkar hastea: babestu zure telefonoa
- Pantaila blokeatzea
- Pantailan finkatzeko funtzioa
- Telefonoa zifratzea
- Segurtasun-kopiak egitea eta leheneratzea
- Berrezartzea
- Telefonoa lapurtu dizute?

Googleko konturik ez baduzu telefonoan, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin, fabrikako datuak berrezartzeko gailuan.

**Abisua:** Fabrikako datuak berrezarriz gero, telefonoko datu guztiak ezabatuko dira.

## Pantailan finkatzeko funtzioa

Informazio garrantzitsuren bat eskura behar duzu, hala nola ontziratze-txartel bat edo deskontu-kupoi bat? Finkatu pantaila, erraz eskuratzeko informazio hori.

Pantailan finkatzeko funtzioa konfiguratzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Seguridad** > **Fijación en pantalla** eta, gero, ukitu etengailua aktibatzeko.

Pantaila bat **finkatzeko**, ireki finkatu nahi duzun aplikazioa, luze sakatu Recientes ☐ eta, joan gorantz. Ukitu 📌.

Pantaila **finkatzeari uzteko**, luze sakatu atzera tekla ◁ **Pantalla no fijada** mezua agertu arte.

**Aholkua:** Pantaila finkatzeko funtzioa aktibatzean telefonoa **babesteko**, ukitu **Bloquear dispositivo al dejar de fijar**.

## Telefonoa zifratzea

**Kontuz:** Zifratze-kodea ahaztu bazaizu, ezin izango dituzu berreskuratu telefonoan edo memoria-txartelean gordetako datuak. Ordubete edo gehiago iraun dezake datu-zifraketak. Utzi telefonoa konektatuta, eta ez eten prozesua inondik inora.

Telefonoko kontuak, doikuntzak, aplikazioak eta fitxategiak babesten ditu zifraketak, telefonoa lapurtuz gero lor ez ditzaten.

**Ez zenuke aukera hau beharko**, baina telefonoa zifratu nahi baduzu telefonoa pizten den bakoitzean PIN bat edo pasahitz bat sartu behar izateko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Seguridad** > **Cifrar teléfono**.

## Segurtasun-kopiak egitea eta leheneratzea

**Joan hona:** Irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Copia de seguridad y restablecimiento**, eta, gero, ukitu **Copia de seguridad de datos** etengailua, aktibatzeko.

Googleko kontuko datuek onlineko segurtasun-kopia izaten dute. Telefonoa berrabiarazi edo aldatzen baduzu, Googleko kontuan saioa hasi besterik ez duzu egin behar kontaktuak, gertaerak eta kontu horrekin sinkronizatutako gainerako informazioa berreskuratzeko.

Segurtasun-kopia egin diezun datuak leheneratzeko aplikazio bat berriro instalatzean, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Copia de seguridad y restablecimiento** > **Restauración automática**.

Kontuarekin zer sinkronizatzen den hautatzeko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Cuentas** > **Google**, ukitu zure Googleko kontua, eta hautatu zer sinkronizatu nahi duzun.

**Oharra:** testu-mezuak, deskargatutako aplikazioak, dei-erregistroak eta telefonoan gordetako elementuak ez dira leheneratuko. Google Play™ko aplikazioak berrezartzeko, ikusi **"Aplikazioak zaintzea"**.

Segurtasuna
Azkar hastea: babestu zure telefonoa
Pantaila blokeatzea
Pantailan finkatzeko funtzioa
Telefonoa zifratzea
Segurtasun-kopiak egitea eta leheneratzea
Berrezartzea
Telefonoa lapurtu dizute?



## Berrezartzea

Telefonoaren fabrika-konfigurazioa berrezartzeko eta telefonoko datu guztiak ezabatzeko, irristatu gorantz ^ > Ajustes > **Copia de seguridad y restablecimiento** > **Restablecer datos de fábrica**.

**Abisua:** Deskargatutako aplikazio guztiak eta telefonoaren erabiltzaile-datu guztiak ezabatuko dira. Hodeiko datuak ez dira ezabatuko.

## Telefonoa lapurtu dizute?

Android gailuen administratzaile bat du telefonoak, eta, haren bidez, gailua urrunetik blokeatu edo berrezar daiteke lapurrengandik babesteko. Informazio gehiagorako, ikusi www.google.com/android/devicemanager.

Gehiago nahi duzu?
Laguntza lortzea eta askoz gehiago

## Laguntza lortzea eta askoz gehiago

Eskuratu erantzunak, eguneratzeak eta informazioa:

- **Laguntza:** irristatu gorantz ^ > ? **Ayuda del dispositivo**, tutorial interaktiboak, jarraibideak, maiz egiten diren galderak, bideoak eta askoz gehiago telefonotik zuzenean eskuratzeko.
- **Moto G⁵ri buruzko informazio guztia:** software informatikoa, erabiltzaile-gidak eta askoz gehiago aurkitu dezakezu hemen: www.motorola.com/mymotog.
- **Aplikazioak deskargatzea:** Ukitu **Play Store**, aplikazioak erosteko eta deskargatzeko.
- **Albisteak:** Hemen aurkituko gaituzu:

  YouTube™ www.youtube.com/motorola

  Facebook® www.facebook.com/motorola

  Twitter www.twitter.com/motorola

  Google+™ www.google.com/+moto

## Aholkuak eta iradokizunak

- **Interaktibitatea:** Gailua erabiltzen berehala hasteko, irristatu beherantz ^ > ? **Ayuda del dispositivo**, tutorial interaktiboak eskuratzeko.
- **Google™-ren laguntza:** Googleren ia aplikazio guztietan, ukitu dezakezu menua ⋮ > **Ayuda**. Googleren online laguntza-zentroetara ere jo dezakezu: www.google.com/support.

## Non aurkitu dezaket araudiari, legeei eta segurtasunari buruzko informazioa?

Informazio garrantzitsu hori errazago eskuratzeko, telefonoaren doikuntzen menuan eta webgunean kontsultatu dezakezu. Berrikusi material hori gailua erabili aurretik. Telefono konektatu batetik material hori eskuratzeko, aukeratu Ajustes > Información legal eta hautatu gai bat. Para acceder al material en la Web, visite www.motorola.com/device-legal.

## Blokeoak berreskuratzea

Telefonoak ukituei eta botoiei erantzuteari uzten badio, berrabiaraz ezazu. Horretarako, luze sakatu pizteko botoia, pantaila itzali eta berrabiarazten den arte.

## Zerbitzuak eta konponketak

Galderarik baduzu edo laguntza behar baduzu, laguntzeko prest gaituzu.

Sartu www.motorola.com/support webgunean, eta bezeroentzako arretako zenbait aukera izango dituzu.

# *Copyrighta eta marka komertzialak*

Motorola Mobility LLC

222 W. Merchandise Mart Plaza Chicago, IL 60654 (Estatu Batuak) www.motorola.com

Zenbait zerbitzu, funtzio eta aplikazio sarearen mende daude, eta, gerta daiteke eremu guztietan erabilgarri ez egotea; baliteke beste zehaztapen, baldintza eta tarifa batzuk aplikatzea ere. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Produktuaren funtzio, ezaugarri eta bestelako zehaztapenak eta erabiltzailearen eskuliburu honetako informazioa informaziorik berrienean oinarrituta daude, eta zehatzak dira inprimatzeko unean. Motorolak eskubidea du, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko.

Oharra: eskuliburu honetako irudiak adibide gisa baino ez daude.

MOTOROLA, M estilizatuaren logotipoa eta MOTO marken familia Motorola Trademark Holdings LLCren marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira. Lenovoren marka komertziala da LENOVO. Google Inc.-en marka komertzialak dira Google, Android, Google Play eta beste marka batzuk. MicroSDren logotipoa SD-3C LLCren marka erregistratua da. Produktuen edo zerbitzuen gainerako izen guztiak beren jabeenak dira. © 2017 Motorola Mobility LLC. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Produktuaren IDa: Moto G5 y G5 Plus Eskuliburu-zenbakia: 68018317005-A